

opusdei.org

Joan Paulo II.ak Josemaria Escrivaren kanonizazioan egindako homilia.

Joan Paulo II.ak Josemaria
Escriva dohatsuaren
kanonizazioan egindako
homiliaren laburpena.

“Mundua Jaungoikoagana jaso
eta barrendik eraldatzea: hona
hemen Sortzaile Santuak
adierazten dizuen eredia” esan
die Aita Santuak 80 herrialde
baino gehiagotatik San Pedro
Plazara bildu direnei.

2004 Mar 3

"Jainkoaren Espirituak gidatzen dituenak Jainkoaren seme-alaba dira" (Erm 8, 14). Gure batzarrean entzun berri diren Paulo apostoluaren hitz hauek, gaur ospatzen dugun Josemaria Escrivaren kanonizazioko mezu esanguratsua hobeto ulertzen laguntzen digute. Berak utzi egin zion otzantasunez Espirituari bere burua gida zezan, Jaungoikoaren nahia zeharo betetzeko bide bakarra dela ongi jabetuta.

Behin eta berriz aldarrikatzen zuen oinarrizko egi kristau hau. Izan ere, eten gabe luzatzen zien bere arimako seme-alabei Espiritu Santuari dei egiteko gonbitea, barru bizitza – Jaungoikoarekiko harremanetako bizitza, alegia – eta familiako, lantergiko eta gizarteko bizitza, mila

lur arazo koskorrez josia dagoena, ez zitezen banatuta egon, baizik eta “santu eta Jainkoaz beteriko” bizi bakarra osa zezaten. “Jainkoa, ikusezina izanik, ageri diren gauzarik lurrezkoenetan ere aurki genezake” (*Conversaciones con Monseñor Escrivá de Balaguer*, 114). Gaurkoa eta larria da, gaur ere, irakatsi hau.

Mundua Jaungoikoaganatzea eta barrendik aldatzea: hona sortzaile santuak agertzen dizuen egitasmoa. Berak gogorazten dizuenez, beharrezkoa da ez beldurtzea Kristoren izaera jatorrizkoena galbidean jartzen duen kultura materialistaren aurrean.

Haren antzera, zabal ezazue gizartean, arraza, maila, kultura edo adineko bereizkeriarik gabe, denok garela santu izatera deituak. Saia zaitezte zeuok lehenbizi, santu izaten, apaltasun eta zerbitzuko

bizimodu ebanjelikoa eramanez, Jaungoikoarenganako uste onez eta Espirituaren ahotsa eten gabe entzunez. Horrelaxe izango zarete “munduarentzat gatza” (cf. Mt 5, 13) eta argi egingo du “zuen argiak denen aurrean, zuen egintza onak ikusiz, zeruko zuen Aita gorets dezaten” (Mt 5, 16).

1931ko abuztuaren 7an, meza santua ospatzen ari zela, Jesusen hitz hauek entzun zituen bere baitan: “Lurretik jasoko nautenean, neuregana erakarriko ditut denak” (Jn 12, 32). Harrezkero garbiago ulertu zuen Josemaria Escrivak bataiatuen zeregina Kristoren Gurutzea gizon-emakumeen gainean jasotzea dela eta bizi giro guztiak ebanjelizatzekeo grina nabaritu zuen. Bere egin zuen, zalantzarik egin gabe, Jesusek Pedro apostoluari luzatutako gonbitea - “Duc in altum” -, plaza honetan entzun berri duguna. [...] Guri guztioi zabaltzen zaigu gaur gonbite

hau. Maisuak esaten digu: “Jo itsas zabalera eta bota sareak arrantzurako” (Lk 5, 4).

Ama Birjinak egin gaitzala
Ebanjelioaren egiazko lekuko,
Kristoren Erregetzaren eraikuntzan
laguntza oparoa emateko prest.

pdf | document generated
automatically from [https://opusdei.org/
eu-es/article/joan-paulo-iiak-josemaria-
escrivaren-kanonizazioan-egindako-
homilia/](https://opusdei.org/eu-es/article/joan-paulo-iiak-josemaria-escrivaren-kanonizazioan-egindako-homilia/) (2025 Mar 28)